

5. DIRU ITURRIAK

Proiektu honen helburu nagusia ez da etekin ekonomiko handiak lortzea, baizik eta, batez ere, hirugarren adineko pertsonen, ume txikien eta egoitzetan dauden pertsonen ongizatea hobetzea, haien bizi-kalitatea handituz eta zahartze aktiboa, osasungarria eta parte-hartzailea sustatuz. Gure proiektua ikuspegi sozial eta komunitario sendo batean oinarritzen da, pertsonak erdigunean jarritz eta elikadura osasuntsua, autonomia pertsonala eta harreman sozialen indartzea ardatz nagusi gisa hartuta. Helburu horiek betetzeko, ezinbestekoa da proiektuak denboran zehar iraunkorra eta egonkorra izatea, eta horregatik finantzaketa-eredu anitza eta orekatua aurreikusten da.



Diru-iturri nagusia udalen eta egoitza publiko zein pribatuen ekarpenetatik etorriko litzateke. Erakunde horiek gure proiektuaren barruan eskaintzen diren jarduerak kontratatuko lituzkete beren erabiltzaileei zuzenduta, bereziki hirugarren adineko pertsonen eta egoitzetan dauden erabiltzaileei begira. Jarduera horien barruan, besteak beste, elikadura osasuntsuari buruzko sukaldaritza-tailerrak, menu orekatuen prestaketa, elikagai egokien aukeraketari buruzko saio informatiboak eta talde-dinamikak eskainiko lirateke. Jarduera guztiak adineko pertsonen behar fisiko, emozional eta sozialetara egokituta egongo lirateke, eta helburua izango litzateke aisialdi aktiboa sustatzea, ohitura osasungarriak bultzatzea, bakardade-sentsazioa murriztea eta pertsonen arteko harremanak sendotzea. Udal eta egoitzekin aurrekontuak hiruhilero adostuko lirateke, jardueren jarraipena eta egokitzapena errazteko, eta horrek proiektuari egonkortasun ekonomikoa emango lioke urte osoan zehar.

Bestalde, bezero indibidualen ordainketak ere aurreikusten dira diru-iturri osagarri gisa. Pertsona partikularrek aukera izango lukete gure proiektuak eskaintzen dituen jarduera jakinetan parte hartzeko, hala nola sukaldaritza osasungarriko ikastaroetan, menu pertsonalizatuaren diseinuan, erosketa-zerrenda merke eta osasuntsuen prestaketan, edota gastronomia-esperientzia osasungarrietan. Jarduera horiek prezio eskuragarrietan eskainiko lirateke, taldearen tamainaren arabera kuotak egokituz, eta horrela parte-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin. Neurri

honek adineko pertsonen autonomia, inplikazioa eta motibazioa sustatuko ditu, eta aldi berean proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa sendotuko du.

Proiektua martxan jartzeko, hasierako inbertsioa beharrezkoa izango da, eta horretan sortzaileek beraiek parte hartuko dute. Sortzaile bakoitzak hasierako ekarpen ekonomikoa egingo du beharrezko baliabideak eskuratzeko, hala nola hasierako materiala, sukaldaritza-tailerrak egiteko tresneria, komunikazio-euskarriak, antolaketa-gastuak eta lehen jarduerak martxan jartzeko beharrezkoak diren bestelako baliabideak. Inbertsio horrek proiektuarekiko konpromiso pertsonala islatzen du, eta funtsezko oinarria izango da proiektuaren lehen fasea modu sendoan abiatzeko.

Azkenik, diru-laguntzak eta subentzioak ere aurreikusten dira proiektuaren finantzaketan. Udaletatik, foru aldundietatik eta bestelako erakunde publikoetatik jasotako laguntzak izango lirateke, zahartze aktiboa, gizarte-ongizatea, elikadura osasuntsua eta ingurumenarekiko konpromisoa sustatzen dituzten ekimenak babesteko helburua dutenak. Laguntza horiek aukera emango lukete jarduera gehiago garatzeko, tailerren kalitatea hobetzeko, material berriak eskuratzeko eta proiektuaren irismena handitzeko, pertsona gehiagorengana iritsiz. Horrela, proiektuak bere izaera soziala indartuko luke, gizarte-balioa lehenetsiz eta adineko pertsonen ongizatea beti erdigunean jarritz.